

OSOKO BILKURA 2023-06-29 EZ-OHIKOA

Organoa: Udal Plenoa
Izaera: Ez-ohikoa
Deialdia: Lehena
Eguna: 2023-06-29
Ordua: Hasiera 18:30etan.
Bukaera 18:40etan.
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak:

Alkatea: Izaro Elorza Arregi andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- .- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
- .- Lierni Altube Moyua andrea (EH Bildu)
- .- Anik Maitane Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)
- .- Iñaki Olalde Aitzelai jauna (Bildu)
- .- Iker Oñate Ayastuy jauna (EH Bildu)
- .- Asier Lauzurika Arrondo jauna (EH Bildu)
- .- Ekhiñe Mendi Altube andrea (EH Bildu)

- .- Miren Amaia Erostarbe Letamendi andrea (EAJ-PNV)
- .- Xabier Mugarza Ayastui jauna (EAJ-PNV)
- .- Itziar Alonso Aguirre andrea (EAJ-PNV)
- .- Eva Maria Gayubo Cazorla andrea (EAJ-PNV)
- .- Claudia Angelica Valdivieso Ascui andrea (EAJ-PNV)

Idazkaria: Iñigo Roldan Catalan jauna
Kontuhartzailea: Paskual Elustondo Darpon jauna

Ez dira bertaratu:

- .- Iñigo Ruiz Barron jauna (EH Bildu)
- .- Saioa Arkonada Perez andrea (EH Bildu)
- .- Idoia Aierbe Lizarralde andrea (EH Bildu)
- .- Jon Kepa Guerricagoitia Arrien jauna (EAJ-PNV)

AZTERGAIAK

1. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: osoko Bilkurako ohiko bilkuren 2023ko egutegia onartzea.
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: batzorde informatibo iraunkorren eraketa eta osiera onartzea.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: alkate zein zinegotzien dedikazioa eta soldatak onartzea.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: udal talde politiko eta bozeramaileen berri ematea.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: udal talde politikoentzako diru-sariak onartzea.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: dedikaziorik ez duten zinegotzientzako laguntzak eta bertaratzteen proposamena onartzea.
7. 868 alkate dekretuaren berri ematea: zenbait eskumen zinegotzietzako eskuordetzea.
8. 907 alkate dekretuaren berri ematea: tokiko gobernu kideak eta alkateordeak izendatzea.

Akta honen parte da saioaren soinu-grabazioaren ondoriozko fitxategia. MP3 formatuko fitxategi bat da, Udaleko Zerbitzariaren saioko karpetan dagoena, osoko bilkuraren datarekin.

Behar besteko quoruma dagoela egiaztatu ondoren, alkate-udalburuak bilkura ireki dela adierazi du, eta gai-zerrenda osatzen duten gaiak aztertu dira. Gai horiek osoko bilkura honi dagozkio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. Artikulua arabera.

BILERA:

1.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: osoko Bilkurako ohiko bilkuren 2023ko egutegia onartzea.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du:

Gaia: Osoko Bilkuraren ohiko bilkuretarako 2023ko egutegia onartzea.

I.- Kontuan hartuta 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, Osoko Bilkurak hilean behin, gutxienez, ohiko bilkura egingo du, 20.000 biztanletik gorako udalerrietako udalak eta probintziako diputazioak; bi hilean behin, 5.001 eta 20.000 biztanle dituzten udalerrietan; eta hiru hilean behin 5.000 biztanle arteko udalerrietan.

II.- Osoko bilkuretarako deialdia, gutxienez, bi egun balioudun lehenago egin behar da, presako bilkura berezietarako izan ezik. Azken kasu honetan, osoko bilkurak berretsi beharko du presako deialdia.

III.- Kontuan hartu behar da Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 84. Artikulua:
"Eztabaidarako eta, hala badagokio, bozketarako oinarri gisa erabili behar den gai-zerrendako gai guztien dokumentazioa korporazioko kideen eskura egongo da deialdia egiten den egunetik bertatik korporazioko idazkaritzan.

Horrenbestez, korporazioko edozein kidek aztertu ahal izango du, bai eta hura osatzen duten dokumentu zehatzen kopiak lortu ere, baina originalak ezin izango dira dauden lekutik atera."

Gaia azterturik, osoko bilkurari 2023ko ohiko bilkuren egutegia hau proposatzen diot:

2

Lehenengoa.- Onartzea, Osoko Bilkuraren 2023rako ohiko bilkuren egutegia, xehetasun hauekin:

2023ko uztailaren 20an
 2023ko irailaren 21ean
 2023ko urriaren 26an
 2023ko azaroaren 30ean
 2023ko abenduaren 14an

Bigarrena.- Batzorde informatiboen egutegiak aurreko egutegia kontuan izanda jarriko dira, kontuan harturik Osoko Bilkurako deialdia gutxienez 2 egun balioudun lehenago egin behar dela eta deialdia egiterakoan espedienteak osorik egon behar duela.

Hirugarrena.- Udal teknikariek deialdia egiten den egunetik gai-zerrendako gai guztien dokumentazioa zinegotzien eskura izan beharko dute.

Gaia aztertuta eta udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: batzorde informatibo iraunkorren eraketa eta osaera onartzea.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du:

Gaia: Batzorde informatibo iraunkorren eraketa eta osaera onartzea.

I.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak dioena ikusita.

II.- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeeri buruzkoaren **29. artikulua** honakoa dio:

"1. Organo osagarriak zehaztean eta osatzean, udalerriek, lege honetan aurreikusitakoaren esparruan, udal-erregelamendu organikoetan ezarritakoa bete beharko dute, edo, halakorik ezean, osoko bilkuraren erabaki bidez ezarritakoa.

2. Osoko bilkuran ordezkariak duten talde politiko guztiek, berariaz uko egin ezean, organo osagarrietan parte hartzeko eskubidea izango dute, talde horietako zinegotziak organo osagarrietan egonda, osoko bilkuran duten proportzio berean. Udalaren osaera dela eta, ezin bada proportzionaltasun hori lortu, postuak banatu ahal izango dira, gehiengoan eraketa osoko bilkurakoa bera izan dadin, edo organoak osatu ahal izango dira talde bakoitzerako kide-kopuru berarekin, eta erabakiak hartzeko boto haztatuaren sistema aplikatu ahal izango da."

Gainera, lege horren 30.3 artikulua honakoa dio:

"Organo osagarrien bilkurak, eta, bereziki, osoko bilkuraren erabakipean jarri behar diren gaien azterketa, txostena edo kontsulta egitea eta gobernu-organoen kudeaketaren jarraipena egitea helburu duten organoenak, publikoak izan daitezke, baldin eta erakundearen osoko bilkurak hala erabakitzen badu legezko kide-kopuruaren gehiengo osoz hartutako erabakiaren bidez, edo udal-erregelamendu organikoan hala aurreikusten bada."

III.- Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 123-126 artikuluek honakoa xedatzen dute:

123. art.

"1. Informazio-batzordeak korporazioko kideek soilik osatzen dituzte, eta ebazteko ahalmenik gabeko organoak dira. Osoko bilkuraren eta gobernu-batzordearen erabakipean jarri behar diren gaiak aztertzea, horiei buruzko txostenak egitea edo kontsultak egitea dute eginkizun, batzorde horrek osoko bilkurak eskuordetutako eskumenak dituenean, presakotzat jotako erabakiak hartu behar direnean izan ezik.

2. Era berean, gobernu-batzordearen eta alkatearen edo presidentearen eskumenekoak diren gaiak buruzko informazioa emango dute, gobernu-batzordeek berariaz hala erabakitzen badute."

124. art.

"1. Informazio-batzordeak iraunkorrak edo bereziak izan daitezke.

2. Informazio-batzorde iraunkorrak dira izaera orokorrean eratzten direnak, eta horien artean banatzen dira Osoko Bilkurari aurkeztu behar zaizkion gaiak. Hasierako kopurua eta izena, bai eta agintaldian zehar egindako edozein aldaketa ere, alkateak edo lehendakariak proposatuta Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez erabakiko da, eta, ahal den neurrian, zerbitzu korporatiboak egituratuta dauden arlo handien kopuruarekin eta izenarekin bat etortzea bilatuko da.

3. Informazio-batzorde bereziak dira Osoko Bilkurak gai jakin baterako eratzten dituenak, edozein motatako ezaugarri bereziak kontuan hartuta.

Batzorde horiek automatikoki desegiten dira beren xedea osatzen duen gaiari buruzko irizpena edo informazioa eman ondoren, uste duen osoko bilkuraren erabakiak beste zerbait xedatzen duenean izan ezik."

125. art.

"Informazio-batzordeak sortzeko erabakian zehaztuko da batzorde horien osaera, honako arau hauek kontuan hartuta:

a) Alkatea edo korporazioko lehendakaria da horien guztien berezko lehendakaria; hala ere, benetako lehendakaria korporazioko edozein kideri eskuordetu ahal izango dio, batzordeak berak proposatuta, eta batzordearen barruan hautaketa egin ondoren.

b) Batzorde bakoitzaren osaera bat etorriko da korporazioan ordezkariak duten talde politikoaren arteko proportzionaltasunarekin.

c) Talde bakoitzaren ordezkari gisa Udaltzako kide izan behar duten kideak batzorde bakoitzari atxikitzeko, talde horretako bozeramaileak alkateari edo lehendakariari zuzendutako idazki bat aurkeztu beharko du, eta horren berri emango zaio Osoko Bilkurari. Titular bakoitzeko ordezkari bat ere izendatu ahal izango da."

Horregatik guztiatik honakoa proposatzen diot osoko bilkurari:

Lehenengoa.- Batzorde informatibo iraunkor hauek sortzea:

- 1.- Ogasuna/ Kontuen batzorde berezia
- 2.- Pertsonala eta Barne Antolamendua
- 3.- Hirigintza
- 4.- Zerbitzuak
- 5.- Landa Garapena

- 6.- Ingurumena
- 7.- Berdintasuna
- 8.- Partaidetza eta Garapen Komunitarioa
- 9.- Ongizate Zerbitzuak
- 10.- Hezkuntza eta Euskara
- 11.- Kultura
- 12.- Gazteria
- 13.- Kirolak
- 14.- Sozioekonomia
- 15.- Turismoa

Batzorde horietako bakoitzaren osaera Udaltzatzen Osoko Bilkuran dagoen ordezkarietara egokitu beharko da. Horregatik, honako hau proposatzen da:

- EH BILDU udal-taldea: bi kide, batzordeburua barne.
- EAJ udal-taldea: kide bat.

Talde politiko bakoitzak izendatuko ditu batzorde bakoitzean ordezkariak (titularrak eta, hala badagokio, ordezkariak), bere bozeramaileak sinatutako idazki baten bidez.

Bigarrena.- 2/2016ko Legearen 29.2 artikulua arabera, arestian aipatutako proportzionaltasuna lortu ezin bada (EH Bildu 2 kide eta EAJ kide bat), osoko bilkurako gehiengoaren eraketa aplikatuko da (EH Bildu 11 eta EAJ 6), eta organoak osatu ahal izango dira talde bakoitzerako kide-kopuru berarekin, eta erabakiak hartzeko boto haztatuen sistema aplikatu da.

PARTE HARTZEKO TXANDA

PARTE-HARTZAILEAK:

Erostarbe andrea.
Elorza andrea.

Gaia aztertuta eta udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotzietatik aho batez onartu dute.

4

3.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak qai honi buruz egindako proposamena: alkate zein zinegotzietatik dedikazioa eta soldatak onartzea.

Alkateak adierazi du a proposamenean aldaketa bat egingo duela: hirugarren puntuan, erabakia uztailaren 1etik aurrera eragina izan beharrean, irailaren 1etik aurrera izango du. Idazkariak, onartutako aldaketarekin, proposamen hau irakurri du:

Gaia: Alkate zein zinegotzietatik dedikazioa eta soldatak onartzea.

I.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 75. artikulua 1 eta 2. atalean honako hau diote: *"Toki-korporazioetako kideek ordainsariak jasoko dituzte beren karguetan jarduteagatik, arduraldi eskusiboan dihardutenean. Kasu horretan, alta emango zaie Gizarte Segurantzako araubide orokorrean, eta korporazioek beren gain hartuko dute kasuan kasuko enpresa-kuoten ordainketa, aurreko artikuluan xedatutakoa salbu.*

Ordainsari horiek jasotzea bateraezina izango da administrazio publikoen eta haien mendeko erakunde, organismo edo enpresen aurrekontuen konturako beste ordainsari batzuekin, bai eta beste jardura batzuk egiteko ordainsariekin ere, hori guztia Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera.

2. Toki-korporazioetako kideek, baldin eta beren karguak dedikazio partzialarekin betetzen badituzte lehendakarietara, lehendakariorde- edo eskuordetze-eginkizunak betetzeagatik edo hala eskatzen duten erantzukizunak garatzeagatik, ordainsariak jasoko dituzte kargu horietan benetan emandako denboragatik; kasu horretan ere, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emango zaie kontzeptu horretan, eta korporazioek beren gain hartuko dituzte dagozkien enpresa-kuotak."

II.- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 32. artikulua honako hau xedatzen du, Toki-erakundeetako ordezkarien eskubide ekonomikoak eta dedikazio-araubideari buruz:

"1. Toki-ordezkariek toki-araubidearen oinarritzko legerian aurreikusten diren eskubide ekonomikoak eta arduraldi-erregimenaren modalitateak izango dituzte, eta, hala badagokio, lege honetan bereziki arautzen direnak.

2. Arduraldi eskusiborako eskubidea aitortzen da, berariaz uko egin ezean, eta 1.000 biztanletik gorako udalerrietan alkateari ordainsaria jasotzeko eta Gizarte Segurantzaren alta emateko eskubidea aitortzen zaio.

3. Osoko bilkurak, alkateak proposatuta, dedikazio eskusiboko edo partzialeko erregimenean dauden karguak edo korporaziokideak zehaztuko ditu, bai eta dagozkien ordainsariak ere. Osoko bilkuraren erabakiak, arduraldi partzialaren kasuan, ordainsari horiek jasotzeko gutxieneko arduraldiaren araubidea jaso beharko du.

4. Arduraldi eskusiboa edo partziala ez duten toki-erakundeko kideek bakarrik jaso ahal izango dituzte ordainketak, bertaratze-kontzeptuan, eta osagai finko batek eta aldagarri batek zehaztuko dituzte. Osagai finkoaren bidez, udal-ordezkarri guztientzat berdina dena, kide anitzeko organoetara eta karguaren ondoriozko bileretara edo jardueretara joatea ordainduko da. Osagai aldagarriaren bidez, ordezkari-tza-karguaren erantzukizunarekin lotutako funtzioak bereiziko dira. Osoko bilkurak zehaztu ahal izango ditu korporatibo bakoitzak bertaratze gisa jaso ditzakeen urteko gehieneko mugak.

5. Toki-erakundeetako kideek kalte-ordainak jasoko dituzte beren kargua betetzean sortutako benetako gastuengatik, herri-administrazioetan oro har aplikatu beharreko arauen eta osoko bilkurak bere garapenean onesten dituen arauen arabera.

6. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetako hautetsien eginkizun publikoak betetzeko ezinbesteko denboratzat jotzen da kasuan kasuko erakundeetako kide anitzeko organoetan parte hartu eta launtza ematera bideratutakoa. Izaera hori izango dute, halaber, hautetsiek ordezkari-tza-zereginetan, eskuordetutako eginkizunetan edo beste erakunde batzuekin edo herritarren elkarrekin egindako bileretan emandako denborak, bai eta beren karguari dagokion beste edozein jardueratan emandako denborak ere, betiere kontuan hartuta, hala badagokio, eskubide horiei dagokienez, lan-legerian eta funtzio publikoari buruzkoan aurreikus daitezkeen aurreikuspenak."

III.- Oposizioaren estatutuari dagokionez, 2/2016 Legearen 33. artikulua honakoa dio:

"1. Hamar mila biztanletik gorako udalerriek bermatu egingo dute oposizioko zinegotzi batek, gutxienez, arduraldi eskusiboa izango duela, udal-gobernua kontrolatzeko eta fiskalizatzeko lana behar bezala egin ahal izateko.

2. Bost mila eta hamar mila biztanle arteko udalerriek bermatu egingo dute oposizioko zinegotzi batek gutxienez arduraldi partziala izango duela, aurreko paragrafoko helburu berberarekin.

3. Edozelan ere, oposizioak duen eskubide hori hauteskunde-emaitzen arabera ordezkari-kopuru handiena duen alderdi edo koalizioari dagokio, edo, halakorik ez dagoenean, indar politiko bozkatuenari. Boto-berdinketa egonez gero, indar politiko biek txandaka baliatuko dituzte eskubide horiek, agintaldiko epe berdinetan. "

Gainera, kontuan hartu behar da EUDELe 2017ko apirilaren 10eko Batzorde Eragileak, 33. Artikuluaren harira ezarri zuen irizpidea:

"ordezkari-tza handiena duen oposizioko taldean dedikazio eskusiboa duen zinegotziaren lansariari dagokionez, gobernu taldean dedikazio eskusiboa eta lansaririk txikiena duen zinegotziaren lansaria aplikatuko da, %10eko murrizketarekin."

IV.- Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bataerazintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 5.2 artikulua ikusita, honako hau adierazten du: "Toki-korporazioetako kideen kasuan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.2 artikulua aipatzen duen arduraldi partzialeko egoeran badaude, ordainsariak jaso ahal izango dira arduraldi horrengatik, baldin eta beren lanalditik kanpo ezartzen badituzte eta inola ere gairatu gabe oro har ezartzen diren mugak. Toki-korporazio bateko kide batek dedikazio partzialeko araubidean lan egiten duen administrazioak, eta azken horrek, bakoitzari dagokion lanaldia eta jasotzen dituzten ordainsariak elkarri jakinarazi beharko dizkiote, bai eta horietan gertatzen den edozein aldaketa ere. "

V.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 39.3 artikulua dioenez, atzeraeragina eman dakieke egintzei, deuseztatutako egintzen ordezkariak direnean, bai eta interesdunari ondorio mesedegarriak dakartzkionean ere; betiere, batetik, egintzak eraginkortasuna izateko jarri den data berriari egitatezko baldintzak jadanik existitzen baziren, eta, bestetik, eraginkortasunak kalterik eragiten ez badie beste pertsona batzuen eskubide edo interes legitimoak.

VI.- 2023ko Gipuzkoako Aurrekontuen 7. Xedapen Gehigarriak (6/2022 Foru Araua, abenduaren 23koa) honako dio: "Asistentziengatik eta ordainsari kontzeptu guztientzat toki korporazioetako kideek jaso dezaketen zenbatekoaren gehieneko mugak ondorengo taularen arabera izango dira, kanpoan utzita, hala balegokio, zerbitzu berezien egoeran dauden karrerako funtzionarioek jaso ditzaketen hirurtekoak, eta kontuan izanda, besteak beste, toki entitatearen izaera eta biztanleria:

10.001etik 20.000rak biztanleak: Eusko Jaurlaritzako zuzendariaren soldataren erreferentzia."

29/2023 Ebazpena, otsailaren 21ekoa, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sektore publikoko langileen ordainsarien 2023rako goerak onartzeko Erabakia argitaratzeko dena. Ebazpen horrek honakoa xedatzen du 6. Atalean: 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, honako hauek izango dira lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta parekoen ordainsariak:

Zuzendaria: 5.566,35€/hilero (14 ordainsarietan) eta guztira gordina: 77.928,90€.

VII.- 2023ko ekainaren 19ko alkate dekretuz zenbait eskumen zinegotzietan eskuordetu ziren, Ogasuneko eta obra eta zerbitzuetako zinegotzigoa eta kultura eta euskara zinegotzigoa.

VIII- Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Udaleko arduraldi eskusiboko karguengatik jaso beharreko ordainsari ekonomikoen aldaketa onartzea, honako xehetasunekin:

Alkatea-udalburua: Arduraldi eskusiboa izango du (%100), eta 53.220,02 euro gordin izango ditu urtean, hamalau ordainsari berdinetan banatuta (3.801,43 euro gordin hilean). Aipatutako soldata urtero eguneratuko da, udaletxeko langileei aplikatzen zaien soldata igoeraren arabera, berariaz hala adosten bada.

Kopuru horiek jasotzea bateraezina izango da administrazio publikoen eta haien mendeko erakunde, organismo edo enpresen aurrekontuen konturako beste ordainsari batzuekin, bai eta beste jarduera batzuk garatzeko ordainsariekin ere, hori guztia Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bataerazintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen arabera.

Erabaki honek 2023ko ekainaren 17tik izango du atzeraeragina, egintzaren eraginkortasunak atzeraeragina izango duen egunean beharrezkoak diren egitatezko baldintzak betetzen baitira.

Bigarrena.- Onartzea dedikazio partzialeko korporazioko kideek jaso beharreko ordainsari ekonomikoen aldaketa, honako hauen arabera:

- Lehenengo alkateordea eta ogasuneko eta obra eta zerbitzuetako zinegotzia, %50eko dedikazio partzialarekin, urtean 20.514,34 euro gordineko ordainsariarekin, hamalau ordainsari berdinetan banatuta (1.465,31 euro hilean). Aipatutako soldata urtero eguneratuko da, udaletxeko langileei aplikatzen zaien soldata igoeraren arabera, berariaz hala adosten bada.

- Hirugarren alkateordea eta kultura eta euskara zinegotzia, %30eko dedikazio partzialarekin, urtean 12.308,66 euro gordineko ordainsariarekin, hamalau ordainsari berdinetan banatuta (879,19 euro hilean). Aipatutako soldata urtero eguneratuko da, udaletxeko langileei aplikatzen zaien soldata igoeraren arabera, berariaz hala adosten bada.

Kide horiek ezin izango dute parte hartzen duen kide anitzeko organoen bilkuretan parte hartzeagatik bertaratze dietarik jaso, eta, gainera, karguari dagozkion zereginetan jardun beharko dute, gutxienez dagozkion dedikazioaren ehunekoan.

Erabaki honek 2023ko ekainaren 17tik izango du atzeraeragina, egintzaren eraginkortasunak atzeraeragina izango duen egunean beharrezkoak diren egitatezko baldintzak betetzen baitira.

Hirugarrena.- Onartzea dedikazio partzialeko korporazioko kideek jaso beharreko ordainsari ekonomikoen aldaketa, honako hauen arabera:

- Bigarren alkateordea eta hirigintza zinegotzia, %50eko dedikazio partzialarekin, urtean 20.514,34 euro gordineko ordainsariarekin, hamalau ordainsari berdinetan banatuta (1.465,31 euro hilean). Aipatutako soldata urtero eguneratuko da, udaletxeko langileei aplikatzen zaien soldata igoeraren arabera, berariaz hala adosten bada.

Kide horrek ezin izango du parte hartzen duen kide anitzeko organoen bilkuretan parte hartzeagatik bertaratze dietarik jaso, eta, gainera, karguari dagozkion zereginetan jardun beharko du, gutxienez dagozkion dedikazioaren ehunekoan.

Erabaki honek 2023ko irailaren 1etik aurrera izango du eragina.

Laugarrena.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

Bosgarrena.- Erabaki hau Pertsonaleko departamenduari eta kontu-hartzaileari jakinaraztea.

Seigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki taulan argitaratzea.

Gaia aztertuta eta udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotzietatik aho batez onartu dute.

4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: udal talde politiko eta bozeramaileen berri ematea.

Idazkariak honen berri eman du:

Gaia: Udal talde politikoen eta bozeramaileen berri ematea.

I.- Talde Politikoen osaketari dagokionez, Toki Erakundearen Antolaketa-aren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko 23. Artikuluaren arabera, toki-korporazioetako kideak, beren jardueraren korporatiboaren ondorioetarako, taldetan eratuko dira. Inor ezin da aldi berean talde batean baino gehiagotan egon.

II.- Bestalde, araudi berdineko 24.artikuluaren arabera, talde politikoak lehendakariari zuzendutako eta kide guztiek sinatutako idazki baten bidez eratuko dira. Idazkia korporazioko idazkaritza nagusian aurkeztuko da, korporazioa eratu eta hurrengo bost egun baliodunen barruan.

Eraketa-idazkian bertan agerraraziko da taldearen bozeramailearen izendapena, eta ordezkioak ere izendatu ahal izango dira.

Hau kontuan izanik, Udal Idazkariak adierazi zuen proposamen hauek jaso dituela:

Lehenengoa.- Udal talde hauek osatu direla eta horren berri ematen da:

1. Oñatiko EH BILDU taldea (Sarrera erregistroa: 3740/2023):

IZARO ELORZA ARREGUI
XABIER IGARTUA LOIDI
LIERNI ALTUBE MOYUA
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO
IÑIGO RUIZ BARRON
IÑAKI OLALDE ALTZELAI
SAIOA ARKONADA PEREZ
IKER OÑATE AYASTUI
ASIER LAUZURIKA ARRONDO
EKHIÑE MENDI ALTUBE
IDOIA AIERBE LIZARRALDE

2. Oñatiko EAJ-PNV taldea (sarrera erregistroa 3706/2023):

MIREN AMAIA EROSTARBE LETAMENDI
XABIER MUGARZA AYASTUY
ITZIAR ALONSO AGUIRRE
EVA MARIA GAYUBO CAZORLA
JON KEPA GUERRICAGOITIA ARRIEN
CLAUDIA ANGELICA VALDIVIESO ASCUI

Bigarrena.- Udal talde horien bozeramaileak honakoak izango dira:

- a.- EH Bildu bozeramaile titularra: Izaro Elorza Arregi

Ordezkoa: Xabier Igartua Loidi.

- b.- EAJ-PNV bozeramaile titularra: Miren Amaia Erostarbe Letamendi

Ordezkoa: Xabier Mugarza Ayastui.

Udalbatza jakinaren gaineran geratu da.

5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: udal talde politikoentzako diru-sariak onartzea.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du:

Gaia: Udal talde politikoentzako diru-sariak onartzea.

Apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 34.2 artikulua honakoa ezartzen du:

"Udal-talde politikoek diru-sariak jasotzeko eskubidea izango dute. Sari bat finkoa eta berdina izango da talde guztientzat, eta bestea, aldakorra, ordezkari kopuruaren arabera, ordezkari horiek esleitu zaizkien eginkizunak duintasunez burutu ahal izateko. Osoko bilkurak finkatuko ditu ordainsari horiek ezartzeko eta esleitzeko irizpideak."

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 73.3 artikulua arautzen du talde politikoen diru-sariak. Bertan honakoa xedatzen da:

"Korporazioko osoko bilkurak, korporazioko urteko aurrekontuen kontura, dotazio ekonomiko bat esleitu ahal izango die talde politikoei. Dotazio horrek osagai finko bat izango du, talde guztientzat berdina, eta beste osagai aldakor bat, talde bakoitzeko kide-kopuruaren arabera, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeetan oro har ezartzen diren mugen barruan, eta ezin izango dira erabili korporazioaren zerbitzura diharduten langileen edozein motatako ordainsariak ordaintzeko edo ondare-izaerako aktibo finkoak izan daitezkeen ondasunak eskuratzeko... Talde politikoek 3. paragrafo honetako bigarren lerrokadan aipatzen den zuzkiduraren berariazko kontabilitatea eraman beharko dute, eta korporazioko osoko bilkuraren esku jarriko dute, hark eskatzen duen guztietan."

Kontuan hartu behar da Kontuen Auzitegiko Justizia Salak 2011-12-19an emandako 18. epaiak ebatzitakoa. Aipatzekoa da Madrilgo Erkidegoko Kontuen Ganberak 2015eko uztailaren 22ko fiskalizazio-txostenean adierazitakoa.

Gainera, BDNSko FAQ dokumentuak 58. orrialdean adierazten du talde politikoen diru-sarie dirulaguntzen Lege Orokorra aplikatu behar zaiela osagarria moduan. Beraz, udaleko talde politikoek jasotzen duten dirulaguntzak BDNS-en erregistratu behar dira.

Horregatik guztiatik, honakoa proposatzen diot osoko bilkurari:

Lehenengoa.- Udal taldeen hileko gastu hau onartzea: 8.525€ (102.300€ urtero). Urtero aurrekontuaren gauzatze arauetan zehaztuko da dirulaguntza honen zenbatekoa.

Bigarrena.- Hileko kopurua honela banatuko da:

55€ talde bakoitzerako, eta 495€ aldakor taldeko kide bakoitzeko.

Horregatik, kopuru hauek proposatzen dira:

- EH BILDU udal-taldea: 5.500€ (55 + 11*495) hilean
- EAJ udal-taldea: 3.025€ (55 + 6*495) hilean

Diru-sari horiek ezin izango dira erabili korporazioaren zerbitzura dauden langileen edozein motatako ordainsariak ordaintzeko edo ondare-izaerako aktibo finkoak osa ditzaketen ondasunak eskuratzeko.

Talde politikoek adierazitako diru-zuzkiduraren berariazko kontabilitatea eraman beharko dute, eta korporazioko osoko bilkuraren esku jarriko dute hark eskatzen duen guztietan.

Hirugarrena.- Talde politikoen dirulaguntza BDNS-en argitaratzea.

Gaia aztertuta eta udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotzietatik aho batez onartu dute.

6.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: dedikaziorik ez duten zinegotzientzako laguntzak eta bertaratzeen proposamena onartzea.

Alkateak, EAJko bozeramailearen eskaera aintzat hartuta adierazi du proposamenean aldaketa bat egingo duela: proposamenean adierazten ziren bertaratzeen mugak ezabatu, bai osoko bilkurarako, bai informazio batzordeetarako. Beraz, proposamenean esaldi hauek ezabatuko dira: "Urtean gehienez ere lau osoko ez ohiko bilkura kobratu ahal izango dira" eta "Gehienez 4 saio hilean kobratu ahal izango da."

Idazkariak, onartutako aldaketekin, proposamen hau irakurri du:

Gaia: Dedikaziorik ez duten zinegotzientzako laguntzak eta bertaratzeen proposamena onartzea.

I.- Apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 32.4 artikulua eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 75.2 artikulua zein azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 13. artikulua arautzen ditu, eta erabakitzen dena jaso beharko udal aurrekontuaren exekuzio oinarrietan.

II.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 75. artikulua 3. atalean honako hau xedatzen da: *“Arduraldi eskusiborik edo arduraldi partzialik ez duten korporazioko kideek bakarrik jasoko dituzte beren korporazioko kide anitzeko organoetako bilkuretara benetan joateagatik laguntzak, korporazioko osoko bilkurak adierazitako zenbatekoan.”*

III.- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 32. artikulua 4 eta 5 ataletan, honako hau xedatzen dute, Toki-erakundeetako ordezkarien eskubide ekonomikoak eta dedikazio-araubideari buruz:

“4. Arduraldi eskusiboa edo partziala ez duten toki-erakundeeko kideek bakarrik jaso ahal izango dituzte ordainketak, bertaratze-kontzeptuan, eta osagai finko batek eta aldagarri batek zehaztuko dituzte. Osagai finkoaren bidez, udal-ordezkarik quztientzat berdina dena, kide anitzeko organoetara eta karguaren ondoriozko bileretara edo jardueretara joatea ordainduko da. Osagai aldagarriaren bidez, ordezkari-tzita-karguaren erantzukizunarekin lotutako funtzioak bereiziko dira. Osoko bilkurak zehaztu ahal izango ditu korporatibo bakoitzak bertaratze gisa jaso ditzakeen urteko gehieneko mugak.

5. Toki-erakundeetako kideek kalte-ordainak jasoko dituzte beren kargua betetzean sortutako benetako gastuengatik, herri-administrazioetan oro har aplikatu beharreko arauen eta osoko bilkurak bere garapenean onesten dituen arauen arabera.

6. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetako hautetsien eginkizun publikoak betetzeko ezinbesteko denboratza jotzen da kasuan kasuko erakundeetako kide anitzeko organoetan parte hartu eta laguntza ematera bideratutakoa. Izaera hori izango dute, halaber, hautetsiek ordezkari-tzita-zereginetan, eskuordetutako eginkizunetan edo beste erakunde batzuekin edo herritarren elkarrekin egindako bileretan emandako denborak, bai eta beren karguari dagokion beste edozein jardueratan emandako denborak ere, betiere kontuan hartuta, hala badagokio, eskubide horiei dagokienez, lan-legerian eta funtzio publikoari buruzkoan aurreikus daitezkeen aurreikuspenak.”

IV.- Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

9

Lehenengoa.- Udaleko kideek kide anitzeko organoen saioetara benetan joateagatik jaso beharreko bertaratzeak onartzea. Zenbatekoak honako hauek izango dira:

- Osoko bilkuretara benetan joandako saio bakoitzeko: 35€.

- Informazio batzordeen saioetara benetan joateagatik: 25€ saio bakoitzeko.

Bigarrena.- Erabaki hau pertsonaleko departamenduari eta kontu-hartzaileari jakinaraztea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki taulan argitaratzea.

EH Bilduko bozeramaileak adierazi du bere udal taldeko kideek uko egiten dietela bertaratzeak jasotzeari. Beraz, udalak ez du arduraldi eskusiboa edo partziala ez duten EH Bilduko zinegotzietan bertaratzerik ordainduko.

Gaia aztertuta eta udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotzietatik aho batez onartu dute.

7.- 868 alkate dekretuaren berri ematea: zenbait eskumen zinegotzietan eskuordetzea.

2023ko ekainaren 19ko 868 zenbakidun alkate dekretuak honakoa dio:

“Zenbait eskumen zinegotzietan eskuordetzea.

I.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak dioena ikusita.

II.- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren 27. artikulua honakoa dio:

“1. Alkateak tokiko gobernu-batzarrari, alkateordeei, alkateordeei eta zinegotzietan eskuordetu ahal izango dizkie bere eskumenak, toki-araubidearen oinarriko legerian ezarritako kasuetan.

2. Biztanle askoko udalerrietan, toki-araubidearen oinarritzko legerian xedatutakoaren arabera arautuko dira alkatearen eskuordetzak.

3. Nolanahi ere, alkateak edozein zuzendaritza-kide, zerbitzuburu edo gaitasun nahikoa duen funtzionarioari eskuordetu ahal izango dizkio ordezkaritza-izaerarik ez duten edo ordezkaritza-kargu publikoen berezko eskuduntzak betetzea ez dakarten eskumen guztiak.”

III.- Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 43. eta 44. artikuluek honakoa xedatzen dute:

43. art.

“1. Alkateak eskuordetzan eman ditzake bere eskumenak, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 eta 71. artikuluetan aipatutakoak izan ezik, artikulua honetan eta hurrengoetan aurreikusitako moduan.

3. Alkateak gobernu-batzordeko kideei eman diezaieke zenbait eskumen betetzeko eskuordetza, eta gobernu-batzorderik ez badago, alkateordeei. Nolanahi ere, eginkizun zehatzetarako eskuordetza bereziak eman diezazkieke edozein zinegotziri, nahiz eta gobernu-batzordeko kide ez izan.

Eskuordetze orokorrak arlo edo gai jakin bati edo batzuei buruzkoak izango dira, eta dagozkien zerbitzuak zuzentzeko eta, oro har, kudeatzeko ahalmena hartu ahal izango dute, hirugarrenei eragiten dieten administrazio-egintzen bidez ebazteko ahalmena barne.

5. Eskuordetza bereziak hiru motatakoak izan daitezke:

b) Zerbitzu jakin bati buruzkoak. Kasu horretan, eskuordetzeak barne zuzendaritza eta dagozkion zerbitzuen kudeaketa hartuko ditu, baina ezingo du barne hartu hirugarrenei eragiten dieten administrazio-egintzen bidez ebazteko ahalmena.”

44. art.

“1. Aurreko artikuluan aipatutako eskuordetze guztiak alkatearen dekretu bidez egingo dira. Dekretu horretan, eskuordetzeak aipatu gaien eremua, eskuordetzen diren ahalmenak eta eskuordetze horiek gauzatzeko berariazko baldintzak jasoko dira, erregelamendu honetan aurreikusitako araubide orokorretik aldentzen diren neurrian.

2. Alkatearen eskumenak eskuordetzan emateak Dekretuaren dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak, Dekretuan bertan besterik xedatzen ez bada. Nolanahi ere, nahitaez argitaratu beharko da probintziako «Aldizkari Ofizial» ean eta, halakorik badago, udal-aldizkarian.

3. Eskuordetzen ondorengo edozein aldaketari aplikatuko zaizkio aurreko paragrafoetako arauak.

4. Eskuordetze guztien eta horien aldaketen berri emango zaio Osoko Bilkurari, horiek egin ondoren egiten duen lehenengo bilkuran.”

IV.- Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduak eskuordetzeak garatzen ditu 114. artikulutik 118ra.

Horregatik guztiagatik, honako hau erabaki dut:

Lehenengoa.- Hainbat zinegotziri eskuordetza berezia ematea, zinegotzigoen barne-zuzendaritzarako eta kudeaketarako. Eskuordetze horretan ez da sartuko hirugarrenei eragiten dieten administrazio-egintzen bidez ebazteko ahalmena:

.- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu): Ogasuneko eta obra eta zerbitzuetako zinegotzia.

Eskuordetzak barne hartzen dituen sailak edo zerbitzuak:

- Ogasuna.
- Bide-obra.
- Eraikin eta espazio publikoak mantentzea eta garbitzea.

.- Iñaki Olalde Altzelai jauna (EH Bildu): Kultura eta euskara zinegotzia.

Eskuordetzak barne hartzen dituen sailak edo zerbitzuak:

- Kultura.
- Liburutegia.
- Euskaltegia.

Nolanahi ere, alkate-udalburuak edozein unetan eta egokitzen jotzen duenean eskumen hori bereganatu ahalko du.

Bigarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, behar bezala ezagutu eta onar dezaten, eta adieraztea eskuordetze eta dekretu honek 2023ko ekainaren 17tik izango dituela ondorioak.

Hirugarrena.- Ebazpen honek indarrrik gabe uzten ditu alkate-udalburuak egindako izendapen edo eskuordetze guztiak, bereziki aurreko aginduetan egindakoak.

Laugarrena.- Aurrekoari kalterik egin gabe, dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki taulan argitaratuko da eta ebazpen honen berri emango da egiten den hurrengo Udalbatzaren osoko bilkuran."

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

8.- 907 alkate dekretuaren berri ematea: tokiko gobernu kideak eta alkateordeak izendatzea.

2023ko ekainaren 26ko 907 zenbakidun alkate dekretuak honakoa dio:

"Tokiko gobernu kideak eta alkateordeak izendatzea.

I.- Udalbatza berria ekainaren 17an eratu zen maiatzaren 28an egindako udal-hauteskundeen ondoren. Oñatiko Udal administrazioaren antolamenduan eta funtzionamenduan eraginkortasuna lortzeko, Alkatetza honek, bere eskumenak erabiliz egokitzen du alkateordeak eta tokiko gobernu batzordearen kideak izendatzea.

II.- Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 46-48 artikuluek honakoa xedatzen dute alkateordei buruz:

"46.

1. Alkateordeak askatasunez izendatuko eta kargugabetuko ditu alkateak gobernu-batzordeko kideen artetik, eta gobernu-batzorderik ez bada, zinegotzien artetik.

Izendapenak eta kargu-uzteak alkatearen ebazpenaren bidez egingo dira, eta ebazpen horren berri emango zaio Osoko Bilkurari, egiten duen lehenengo bilkuran. Gainera, izendatuei pertsonalki jakinaraziko zaie, eta probintziako «Aldizkari Ofizialean» argitaratuko dira, hargatik eragotzi gabe alkateak ebazpena sinatu eta hurrengo egunetik aurrera izango duen eraginkortasuna, ebazpen horretan besterik xedatzen ez bada.

2. Gobernu-batzordea duten udalerrietan, alkateordeen kopurua ezin izango da batzordekideena baino handiagoa izan. Horrelako batzorderik ez dagoen beste kasuetan, alkateordeen kopurua ezin izango da korporazioko kideen legezko kopuruaren herena baino handiagoa izan. Zenbaketa egiteko, ez dira kontuan hartuko zinegotzien guztizko kopurua zati hiru eginda ateratzen diren hamartarrak.

3. Alkateorde izaera galduko da, kargu-uzteagatik ez ezik, idatziz berariaz uko egiteagatik eta gobernu-batzordeko kide izateari uzteagatik ere."

47.

"1. Alkateordeei dagokie, eginkizun guztietan eta izendapen-hurrenkeraren arabera, alkatea ordezkatzeko, alkateari bere eskumenak betetzea eragozten dion absentzia, gaixotasun edo eragozpenen bat gertatzen denean. Alkateordeei dagokie, halaber, alkatearen eginkizunak betetzea, alkatetzan kargua hutsik dagoenean, alkate berria karguaz jabetu arte.

2. Alkatearen absentzia, gaixotasun edo eragozpenen kasuetan, alkateordeak ezin izango ditu alkatearen eginkizunak bere gain hartu, berariaz eskuordetzen ez bada, eta 44. artikuluko 1. eta 2. zenbakietako baldintzak bete beharko ditu.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, alkatea udalerritik hogeita lau ordu baino gehiago ateratzen bada eskuordetzarik eman gabe, edo ezusteko arrazoiren batengatik ezinezkoa gertatu bazaio eskuordetza ematea, dagokion alkateordeak ordezkatzeko du, bere eginkizun guztietan, eta korporazioko gainerako kideei emango die horren berri.

Era berean, bilkura batean parte hartzeari uko egin behar zaionean, bileraren puntu jakin bati dagokionez, lehendakariak, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 76. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, dagokion alkateordeak ordezkatzeko du automatikoki, bilkurako lehendakaritzan."

III.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.1 artikulua hau xedatzen du:

“1. Alkateak eta legezko zinegotzi-kopuruaren herena baino gehiagokoa ez den zinegotzi-kopuru jakin batek osatzen dute tokiko gobernu-batzarra. Alkateak izendatzen eta kentzen ditu askatasunez, eta osoko bilkurari ematen dio horren berri.

2. Tokiko gobernu-batzarrari dagokio:

A) Alkateari bere eskumenak gauzatzen laguntzea.

B) Alkateak edo beste udal-organoren batek eskuordetzen dizkion edo legeek esleitzen dizkieten eskumenak.”

IV.- Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 52 eta 53 artikuluek honakoa xedatzen dute:

“52. Artikulua:

1. Gobernu Batzordea, alkateak (bera da batzordeburua) eta alkateak berak askatasunez izendatutako zinegotziek osatuko dute.

2.- Alkateak gobernu-batzordeko kide izendatu ditzakeen zinegotzien kopurua ez da izango korporazioko kideen legezko kopuruaren herena baino handiagoa. Zenbaketaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko zinegotzi-kopuru osoa zati hiritik ateratzen diren dezimalak.

3. Alkateak askatasun osoz utz dezake kargutik Gobernu Batzordeko edozein kide.

4. Izendapenak eta kargu-uzteak erregelamendu honen 46. artikulua lehengo zenbakian ezarritako formalitateekin onartuko dira.

5. Alkateak ebazpen bakarria eman dezake Gobernu Batzordeko kide izendatzeko eta erregelamendu honetako 43. artikuluan aipatzen diren eskumenak eskuordetzeko.

53. artikulua:

1. Gobernu Batzordearen eskumen propioa eta eskuordetuzina da alkateari etengabe laguntzea bere eskumenak betetzen. Horretarako, Gobernu Batzordeari alkatearen erabaki guztien berri emango zaio. Informazio hori erabakia hartu aurretik emango da, baldin eta gaiaren garrantziak hala eskatzen badu.

2. Era berean, alkateak edo osoko bilkurak 43. eta 51. artikuluetan xedatutakoaren arabera eskuordetzen dizkieten eskumenak baliatuko ditu gobernu-batzordeak, bai eta legeek berariaz esleitzen dizkietenak ere.

3. Alkateak eta Osoko Bilkurak Gobernu Batzordean eskuordetzeak egiteko araubidea erregelamendu honetako 43., 44. eta 51. artikuluetan xedatutakoa izango da.”

Gainera, araudi horren 43. eta 44. Artikuluek diote:

“43.2. artikulua:

Alkateak Gobernu Batzordeari eskuordetzeak egin diezazkioke, kide anitzeko organo gisa. Kasu horretan, eskuordetutako gaiak buruz alkateak hartutako erabakiek eskuordetu ez dituen eskumenak baliatuz ematen dituen ebazpenen balio bera izango dute, Batzordearen funtzionamendu-arauen arabera hartzeari kalterik egin gabe.

V.- Ikusita 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko legeak dioena.

Nik Oñatiko Alkate naizen honek, honen bidez erabakitzen dut:

Lehenengoa.- Honako zinegotzi hauek tokiko gobernu batzarreko kideak izendatzea (alkatea gehi bost gehien jota):

1. Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
2. Iñigo Ruiz Barron jauna (EH Bildu)
3. Iñaki Olalde Altzelai jauna (EH Bildu)
4. Lierni Altube Moyua andrea (EH Bildu)
5. Anik Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)

Bigarrena.- Honako zinegotzi hauek alkateorde izendatzea eta hurrenkera honetan:

1. Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
2. Iñigo Ruiz Barron jauna (EH Bildu)
3. Iñaki Olalde Altzelai jauna (EH Bildu)
4. Lierni Altube Moyua andrea (EH Bildu)
5. Anik Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)

Hirugarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, ezagutu eta onar dezaten, eta adieraztea izendapenek ebazpen honen datatik aurrera izango dituztela ondorio guztiak.

Laugarrena.- Dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidaltzea, argitara dadin, eta egiten den lehengo bilkuran Udalbatzaren osoko bilkurari ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.- Berariaz indargabetuta geratzen dira aurretik emandako ebazpen guztiak, alkateak alkateordeei eskuordetzeari buruzkoak.”

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Besterik ezean, 18:40ak zirenean, alkateak amaitutzat jo zuen bilkura, eta esandakoak jasota gera daitezen egin dut agiri hau alkatearen ontzat emanarekin.

O.E

Alkateak

Idazkaria

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan